

ongi ikusitzen;  
 bañan badiogu gaitz  
 charren bat ikusten,  
 orduban eztiogu  
 inbiririk artzen.

---

## BI NEKAZARIYAK ETA AITZURRAK.

---

Lurrak igualak eta  
 ala baserriyak,  
 zituztelarik auzo  
 bi nekazariyak,  
 baten lurrak ematen  
 zuben laborea  
 bestearrenak bañon  
 askozaz ohea,  
 eta ugariyago  
 bi alako iya,  
 naiz nola artoa ta  
 ala naiz gariya.  
 Besteak ikusirik  
 bere miseriya,  
 lurrak ezer ematen  
 etziola iya,  
 esaten zuben—ezta  
 falta lurrarena,  
 ezpada nere aitzur  
 arlotearena;  
 nik banu nekazari  
 auzoko arena,  
 ark bai neri egingo  
 lirakela lana;  
 gozo jartzendu arrek

jotzen duben lurra,  
 gallal dituba<sup>1</sup> baita  
 ark duben aitzurra;  
 ni nere char onekin  
 ez nedike bizi,  
 ernegatzen nago ta  
 jo ta biet autsi;  
 eta porrokatzeko  
 asmo au alchatu  
 zubenean, aitzurrak  
 esan zion:—kontu,  
 etzazula jo gogor  
 nerekin paretik,  
 zuk uste dezun kulpa  
 modurik eztet nik.  
 —¿Zeñek dik bada? zion  
 eranzun gizonak;  
 —zuk, eztu bestek kulpik  
 zuk dituzu denak;  
 maister auzokoaren  
 gisan egillea  
 denak aitzurra izan-  
 go du langillea;  
 bañan zure moduban  
 maiz alper dagonak  
 eztitu ikusiko  
 bere lurak onak;  
 eta artaz kontura  
 jaikirik gizona,  
 esan zion—ala dek,  
 dek lezio ona.—  
 . . . . .  
 Onek erakusten du  
 gure zori ona  
 jaikitzen dala gogoz  
 egitetik lana;

(1) Privilegiado.

bearrik egin gabe  
 nai dubenak bizi,  
 ez dezakela pozik  
 echean ikusi.

---

## CHIMUBA ETA FAROLA.

---

Chimubak izanikan  
 bere grina dena,  
 egin naikoa bestek  
 egin oidubena:  
 bein pintatzalle baten  
 lan tokira sartu,  
 eta zizkan pintura  
 ta brochak lapurtu;  
 eta bere aiekin  
 pozez zijoala,  
 topoz eginik eskin  
 batean farola,  
 onek pintore berri  
 ari esan zion,  
 ia pintura mañu  
 bat emango zion;  
 sarri zirala festak  
 egin bearrak an,  
 eta chukunki ager  
 zediyen festetan;  
 eta gelditu gabe  
 chimuba pentsatzen  
 segiruban asi zan  
 farola pintatzen;  
 zeñen bere nai dena  
 artarako baitzan,  
 bañan lan artan asi  
 bazan ta asi zan;